



Gida tzekoa

2019-11-28
107.6 fm ·
www.ataria.eus

AUKERATU — — NAHI DUZUN HORI

Elementu asko barnebiltzen ditu motorraren munduak. Ibilgailu sorta zabala dago egun merkatuan eta horrekin lotutako sektore indartsu bat garatu da; garajeak, pneumatikoen salmenta puntuak, aseguru etxeak, auto-eskolak... Motordun ibilgailuak ere asko dira, ez autoak edo motorrak bakarrik, gaur egun, esaterako, motorra duten bizikletak ugaritu dira gure errepide eta kaleetan.

Gustuen arabera aukeratu ohi ditugu gauza asko, baina motorrari lotuta bada gailentzen den beste elementu bat ere: segurtasuna. Errepidean gaudela segurtasuna zaindu behar dugu eta horretarako ibilgailuen egoera hartu behar da kontuan. Tolosaldean garaje asko daude eta horietan gure ibilgailuen egoera aztertu genezake, matxurak konpondu edota gustuen araberrako aldaketak egin.

Garaje espezializatuak daude, marka edo etxe jakin batekin lan egiten dutenak, eta baita edozein ibilgailu konpontzeko ahalmen, kalitate eta profesionaltasuna dutenak ere. Lantalde bikainak daude eskualdean bertan bezeroak nahi duen hori emateko, eta horietako asko daude ondorengo orrialdeetan.

Mota askotako motordun ibilgailuak eskuratu daitezke oso urrutira joan gabe, eta behin eskuratuta mantentze lanetan lagunduko duten hamaika aukera ere badaude.

Datozen hilabeteetan ibilgailu bat erosi nahi duenak ere eskaintza zabala aurkituko du gehigarri honetan, autoetatik hasi, bizikletetik pasa eta aseguruetan bukatu arte. Gehigarria patxadaz irakurri eta aukeratu nahi duzun hori.



Testuak: Irati Urdalleta Lete eta Asier Imaz Arrate. **Argazkiak:** Irati Urdalleta Lete, Asier Imaz Arrate, berri Motor, Carza, Novocar, Cheyenne, Urkamendi, Bat, TRT, Aztaka 4x4, N1 Motor, Arriaran, Saldias Miguel, Anoeta karrozeria, eta Seicar.



OSTEGUNA, 2019KO AZAROAK 28
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez.
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete.
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezera arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



01 02

CARZA
GIPUZKOA

BERRI
MOTOR



Helbidea: Iñauti industrialdea, 21, Olaberria — Telefono zenbakia: 943 16 20 23

BERRI MOTORREK STOCK-A KITATUKO DU ABENDUAN

Berri Motor kontzesionarioak 2019ko modeloak kitatzeko eta 2020koei lekua egiteko gaindiezinezko eskaintzak izango ditu abenduan zehar. Berri Motor kontzesionarioan FCA taldeko Fiat, Jeep, Abarth eta Alfa Romeo autoak aurkituko dituzu.

Talde horretako modelo eskatuenean artean Jeep Renegade nabarmendu behar da, 'fuerapista' gaitasun izugarria duen ibilgailua da eta Berri Motor kontzesionarioan 17.800 eurotik aurrera eskuratu daiteke.

Markak duen beste ibilgailu berezietako bat Fiat 500X-a da. Kontzesionarioan 15.400 euroan eskuratu daiteke. Jada ikono bihurtu den autoa hazi egin da eta leku gehiago du; maletategiak 350 litroko edukiera du eta atzeko aulkiek orain, toki zabala dute.

Berri Motorrek egingo duten destokcagerako aukeratu duen eskaintzarik garrantzitsuenak Fiat Doblo-rena da; 14.900 eurotik aurrera eskuratu ahal izango da. Erabilera anitzeko modelo da eta kanperizatzeak aukera zabalak eskaintzen ditu. Bizikletak modu erraz eta erosoan eraman daitezke.

Alfa Romeo autoa ere eskainiko du; erabat hornitutako Stelvio autoa erosi ahal izango da 34.000 euro ordainduz.

Berri Motorrek pasa den maiatzean ireki zuen saltokia Olaberriako Iñauti industrialdean, eta eskaintza honetarako unitate mugatuak ditu, beraz eskaintza guztiak ezagutzeko lehenbailehen gerturatzea aholkatzen du.



Helbidea: Iñauti industrialdea, Olaberria [N-1 errepidea, 416 km-a]

Telefono zenbakia: 943 88 58 62

PEUGEOT 208 BERRIA, ESKURA

Peugeotek azaroan atera zuen 208 berria. Modelo berria da eta 205 mitikoa-ren arima mantentzeaz gain, abangoardiako teknologia du, eta baita gidatzeko laguntza ere, izan ere autobidean joanda gidatze erdiautomatikorako aukera ematen du.

Auto honek motor elektrikoa edo termikoa du (diesela edota gasolina). Orain arte, eta batez ere B segmentuko turismoen artean, ezin zen motor elektrikorik aurkitu, modelo zehatz eta mugatueta izan ezik.

Peugeot 208 berriak ikono bat izan nahi du, eta Carza Gipuzkoan eskuragarri dago jada, bai Olaberriako Iñauti industrialdean eta baita Oiartzungo Lintzirinen ere. Eta orain irteera-eskaintza bat dugu eskuragarri, eta 1.000 euro baino gehiago aurreztu ditzakezu. Gure instalazioetan autoa probatzeko aukera eskaintzen dugu gainera.

Peugeoteko kontzesionario honetan ez duzu irteera-eskaintza hau bakarrik topatuko, abenduan zehar gerentziak erabili dituen autoak ere eskainiko baititugu. Kilometro gutxi dituzten autoak dira, ekipamendu bikaina dute eta salneurri erakargarrietan eskuratu ahal izango dira.

Carza Gipuzkoak maiatzean ireki zuen Olaberriako saltokia Goierriko presentzia indartzeko helburuz, zonaldeko herritarrei erosketa eta erosketa ondoko zerbitzuak eskaini ahal izateko.

0304

CHEYENNE

NOVOCAR



Helbidea: Iñauti industrialdea, Olaberria, eta Lintzirin industrialdea, Oiartzun
Telefono zenbakia: 943 88 27 39

BEHERAPEN IKARAGARRIAK IZANGO DITUGU ABENDUAN

Abenduan zehar Novocarrek, Gipuzkoako Kia-ko kontzesionario ofizial bakarrak, stock-ean dituen autoak kitatu nahi ditu. Berriak, erdi berriak eta 0 km duten 70 auto berri aterako ditu, eta eskaintza hori ez da urte bete arte errepikatuko.

Kia Novocarreko salmenta buruak, Javier Rodriguezek, esan du autoa erosteko aukera «paregabea» dela, izan ere urteko beste edozein unetan ezingo da Kia auto bat horren merke erosi. Rodriguezek aurreratu du Ceed Tourer 1.0 T-Godiva 120 CV modeloaren unitate bakar bat jarriko dutela salgai 13.000 eurotik aurrera ordainduta. Ez da eskaintza bakarra izango; Kia Sportage 1.6 GDI modeloaren 6 unitate izango dituzte 17.500 eurotik aurrera erosteko, edo Kia Stonic-a 12.900 eurotik aurrera ordainduta.

Kia Novocarrek auto bat erosteko erraztasunak eskaintzen ditu, bezeroaren beharretara egokituz. Enpresa zein autonomoei zuzendutako sail berezia du ere.

Novocarrek maiatzean ireki zuen Olaberriareko saltokia bere zerbitzua Donostiako zonaldera eta Goierriara zabaltzeko asmoz. Erakusketa zabal eta argitsua du, eta salmenta ondorengo zerbitzua eskaintzen du oso ondo prestatutako langileei esker.



Helbidea: Ubegun industrialdea, Villabona — **Telefono zenbakia:** 943 69 00 79 / 672 261 196 / 672 261 177 — **Webgunea:** www.cheyennet.com — **Emaila:** cheyenne@cheyennet.com — **Facebook:** Cheyenne Harley-Davidson — **Instagram:** Cheyenne_harley_davidson

BIZIMODU BAT HARLEY GAINEAN

Gaztetako motor zaletasunak bultzatuta erabaki zuten Karmele Etxeberriak eta senarrak Harley-Davidson denda bat irekitzea. «Horrelako motor bat erosi nahi genuenean konturatu ginen hemen ez zegoela dendarik», esan du. Etxeberria lanik gabe geratu eta Harley-Davidsonen ordezkioak, arropa eta osagarriak saltzen hasi ziren, eta handik urte gutxira marka bera gerturatu zitzairen. Hasieran Tolosan eta gero Anoetan jarri zutena txiki geratu eta Villabonako Cheyenne dendara joatea erabaki zuten.

Bertara sartuta, denetatik ikusi daiteke: motor handiak eta txikiagoak, arropa, osagarriak... «Hona etorri eta motorra erosten duena denarekin ateratzen da», ziurtatu du. Mota eta prezio askotako motorrak daukate: «6.700 eurokoak, 8.000koak, 11.000koak... Oso prezio onak ditugu baita erraztasun guztiak ere. Motor hauek denon eskura daude». Erraztasun horien artean daude, esaterako, finantzatzea eta aseguruia. «Denda ofizial batera etortzeak segurtasuna eta kalitatea ematen ditu», gaineratu du. Hori dela eta, badaukate errepikatzen duten bezeroak ere: «Jende askok aurrena motor txikia erosten du, eta gustatzen zaienez, handiagoaren bila etortzen dira gero». Gainera, erosi aurretik probatzen uzten diete, inolako konpromisorik eta kosturik gabe, eta motorrak alokatzeko aukera ere badago. Behin erositara, berriz, edozein konponketetarako tailerra ere Villabonan bertan daukate.

Harley-Davidson motor bat erosteko bizitzeko modu berri bat irekitzen duela dio Etxeberriak: «Antolatzen diren jaialdiek beste jende bat ezagutzeko aukera ematen dizute». Emozio asko ematen duen marka bat da. «Probatu eta sentitu», esan du. Azaroak 29tik aurrera bizimodu horretan murgiltzeko aukera paregabea egongo dela azaldu du: «*Black friday* dela eta, bihartik aurrera deskontuak izango ditugu dendan».

Zu zeu zara zure influencer bakarra.



Audi A4 Avant berria hilean 290 eurotik *

Bi pertsona mota daude: zu eta gainontzekoak. Pertsonalitate propioa duzulako eta ez zaudelako azken joeren menpe. Zure sena bakarrik jarraitzen duzulako. Eta senak esaten dizu Audi A4 Avant ez dela beste auto bat. Diseinu elegantea du eta kirol jenio bizia, eta horren adierazle dira LED motako aurreko argiak, MMI Navigation plus sistema edo ECO marka duten Mild hybrid motor aurreratuak. Aproposak dira pauso bat aurrera emateko eta bide propioa irekitzeko, zu bezala, inor eta ezer jarraitu gabe.



Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 Kw (136 CV) S tronic. CO2 isurketak (g/km): 137-151 (NEDC: 104-113). Kontsumoa (l/100 km): 5,2-5,8

► Audi A4 Avant Advanced 30 TDI 100 KW (136 CV) S tronic-ra egokitutako Audi Financial Services-en eskaintza, 36 hilabetera eta guztira 45.000 kilometrotarako Renting kontratuarekin. 6.645 euroko sarrera bat ordaindu behar da, Volkswagen Renting SA-ren bidez. Kuotak eta sarrerak ez dute BEZik. Gorpil zorroen aldaketarik gabe. Eskaintzak Red Oficial Audi-ren mantenu eta higatze zerbitzu guztiak barnebiltzen ditu, baita garantia (matxuren konponketa), frankiziarik gabeko arrisku oroko aseguruia eta hitzartutako epealdiko bidaia asistentzia. Beste bertsioetarako edota ekipamendurako Audi kontzesionarioan galdetu. Eskaintzaren azken eguna 2019ko urriaren 31. Audi Financial Services marka Volkswagen Renting SA-k merkaturatzen du. Irudiko autoa ez da eskaintzako bera.

05 06

BAT
GARAIEA

URKAMENDI
MOTOR



Helbidea: Hernio Bidea, 45, Zizurkil **Telefono zenbakia:** 943 69 41 64
Webgunea: www.urkamendimotor.com **Emaila:** info@urkamendimotor.com /
taller@urkamendimotor.com **Facebook:** Urkamendi Motor

KONFIANTZA TAILERRAREN OINARRI

2016an ireki zuten Lukas Alamok eta Aaron Roblesek Urkamendi Motor tailerra. Hala ere, guztira, hamalau urte daramatzate elkarrekin lanean. Zizurkil-en daukate mota guztietako kotxeentzako tailerra. Bertan, mekanika orokorra egiten dute, baita autokarabanetan ere.

Tratuari ere garrantzia ematen diote: «Bezeroek gugandik gehien baloratzen dutena da beti erakusten diegula zer egin diogun kotxeari», dio Alamok. Hori dela eta, gertuko tratua ematen diete bezeroei, eta beraiekin konfiantza handia dute. «Askok eskertzen dute pieza nola izorratu den eta motorrari zer kalte egiten zion azaltzea».

Alamok nabarmendu du jendeak gero eta garrantzia handiagoa ematen diola kotxea ondo edukitzeari: «IAT ibilgailuen azterketa teknikoaren berrikusketan ere gauza gehiago eskatzen dituztenez, jendeak hobeto edukitzen du kotxea». Gainera, azterketa horretan erabiltzen diren makineria bera daukate. Beraz, konfiantza giroan eta puntako makineria erabiliz kotxea konpondu nahi duenak Zizurkil-en dauka Urkamendi Motor tailerra.



Helbidea: Ibaiondo industrialdea, 10, Irura **Telefono zenbakia:** 943 69 22 05
Webgunea: www.batgaraiea.com **Emaila:** info@batgaraiea.eus

AUTOAREN ARAZO DENEN KONPONBIDEA

«Zure autoaren arazo guztiak konpondu ditzakegu», dio Bat garajeko Gaizka Leundak. Eta ez da gutxiagorako. Izan ere, zerbitzu ugari eskaintzen dituzte: autoen sistemen berrikustea eta arazoaren sorburua aurkitzea ordenagailu bidez; autoen konponketa mekaniko guztiak, motorraren edozein matxuratatik suspentsioak sortu dezakeen edozein arazo; kolpeak eta arrasto txikiagoen konponketa; beirak aldatzea; edota aire girotuak izan dezakeen edozein matxura konpontzea. «IAT ibilgailuen azterketa teknikoa pasatzera joan aurretik berrikusketa bat egiteak garrantzia handia du», diote. Bat garaieak zerbitzu hori ere ematen du. «IAT azterketan begiratzen dituzten atalak egiaztatu eta konpontzen ditugu, esaterako, suspentsioa, balazta, argiak, kutsadura maila gasolina eta diesel ibilgailuetan...».

Horretarako, lantalde espezializatua daukate. «Bezero bakoitzaren beharretara egokitzen gara», ziurtatu dute. Esaterako, edozein konponketa egin behar denean finantzaketa eskaintzen dutela baldintza oso onetan. Gainera, azken teknologiarara egokituta dago. Esaterako, autoen konponketan kolore desberdintasuna ekiditeko, bost angeluko espektrofotometroa daukate. «Tresna honek dagoen kolorea aztertu eta gehien gerturatzen den formula ematen digu», azaldu dute. Beraz, ez egin dudarik, eta autoak edozein matxura duela ere, joan Irurako Ibaiondo industrialdean dagoen Bat garajera. Ez zara damutuko.

07

**OIARTZUN
BIKE**



Bicicleta specialized levo expert
Batería 700wh. **Salgai Oiartzunen.**
8200€- 6499 €



Bici haibike sduro fullseven 2019
2999€ 2399 €



Bici haibike sduro trekking 19
2999€ 2399 €



Bici Mondraker e prime 19
2999€ 2399 €



■ **Helbidea:** Bazurka industrialdea, Altzo-Azpi Barreiatua etorbidea, Alegia ■ **Telefono zenbakia:** 943 49 22 84 ■ **Ordutegia:** Astelehenetan 16:00etatik 19:30era; asteartetik ostiralera 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. ■ **Facebook:** Oiartzun-Bike ■ **Instagram:** oiartzun_bike

BIZIKLETA ELEKTRIKOETAN ESPEZIALIZATUTAKO DENDA, ALEGIAN BERTAN

Oiartzun Bike etxeak bizikleta denda zabaldu du Alegiako Bazurka industrialdean, Route 33ren parean. Salmenta berari baino, bezeroentzat duten mantenu zerbitzuari eman nahi diote garrantzia.

Garaian garaiko bizikletak, baina guztiaren gainetik, E-bike bizikletak eta bezeroentzako mantenu tailerra. Oraingoan, 700 metro karratu ditu Oiartzun E-bike denda, baina Alegiako Bazurka industrialdean handitzen joateko asmoa dute. Route 33ren parean dago Oiartzun Bike etxearen bizikleta denda berria. E-bike izena jarri diote, hain justu, bizikleta elektrikoetan espezializatuko direlako. «Gaur egun, ikusten dituzun bizikleta mota guztiek dute bere anai edo arreba elektrikoak: errepiderako, mendirako, paseorako... eta guztiak daude Alegiako Oiartzun E-biken». Hibridoak, Gravel, Enduro... zerrenda amaigabea da. Katalogo zabal honek, Oiartzun E-biken eskaintzaren %90 osatzen du. Hala ere, Oiartzun Bike etxearen parte denez, garaian garaiko eskaintza osagarriak dituzte Alegian. «Gabonetan, adibidez, haurrentzako bizikleta ugari jarri ditugu. Errepiderakoak ere badaude, eta baita bizikletarako osagarriak ere. Goiko solairuan, berriz, fitness-erako makina espezializatua dago. Erakusketa iraunkorra da, eta ergometroak, pisu makinak, korrikarako zintak, bizikleta estatikoak... badaude ere».

Salmentari garrantzia ematen dioten arren, mantenu zerbitzua azpimarratu nahi dute Alegiako Oiartzun E-biken. «Berdin dio Oiartzungo dendan erositako bizikleta edo Alegian; edo karreterakoa den edo elektrikoak. Alegian, bertako bezeroei ematen diegun zerbitzua ematen diegu guztiei. Hori bai, esan bezala, bizikletak etxe honetan erositakoak izan behar du. Guretzat oso garrantzitsua da mantenua, eta zentzu batean, horretarako zabaldu dugu Alegian Oiartzun E-bike, Oiartzunera joan beharrik gabe, eskualdean tailer zerbitzua izateko gure bezeroek». Bizikleta elektrikoek gain, beraz, Oiartzun Bike-eko bestelako bizikletak ere kon-

pontzen dituzte, jakitun baitira errepideko bizikleta asko Oiartzungo dendan erosiak direla. Bizikleta elektrikoetan espezializatuak izanik, Alegiako Oiartzun E-bike-n ongi ezagutzen dute mantenuaren garrantzia modu horretako bizikletetan. «Motor elektrikoak potentzia izugarria sortzen du, eta horrek transmisioan bere eragina dauka. Noizean behin tailerrera ekartzea gomendagarria da, ondoren alferrikako gastu bat ekiditeko. Adibidez, kate aldaketa garaiz egiten baldin bada, 17-18 euroan egin daiteke. Arazoa gerorako uzten baldin bada, kaltea izugarri handitu daiteke, eta gastua 300 eurora igo. Egindako kilometroen arabera, mantenua, azkenean, ekonomikoagoa ateratzen da».

E-bike bizikletak Europako herrialde nagusienetako merkatuetan indartsu sartu dira. Ohitura aldaketa bat ekarri dute; lanera joateko autoa erabili beharrean bizikletaz joatekoarena, adibidez. Kirol ikuspegitik ere ez da nolanahiko iraultza: «Mendira bizikletaz joatea ez zegoen lehen edonoren esku. Batzuei burutik pasa ere ez zitzaien egiten horrek zekarren esfortzuagatik. Orain hori ez da horrela. Edonork egin dezake mendi buelta bat bizikleta elektrikoarekin. Askok zabaltzen ari den ohitura da».

Bizikleta elektrikoek ez dute motorra martxan jartzen duen palanka bat. Software baten bidez funtzionatzen dute, eta hori, norbanakoei egokitu joan daiteke, azken berrikuntzekin. Horregatik, Oiartzun E-biken salmentari garrantzia ematen diote, bezeroa azken berrikuntza guztiekin joan dadin, baina salmenta ondorengo jarraipena garrantzitsuagoa dela azpimarratzen dute, erositako bizikleta horrek ahalik eta gehien iraun dezan.

08 09

AZTAKA
4X4
TAILERRA

TRT
TALLERES



Helbidea: Usabal industrialdea, 8, Tolosa — Telefono zenbakia: 943 67 32 62 —
Webgunea: www.talleresrt.net — Emaila: oficinatalleresrt@yahoo.es

EKOLOGIKOAREN ALDEKO APUSTUA

Hogei urte baino gehiago daramatza lanean Joseba Fernandezek kotxeak konpontzen. 2007an, berriz, Trt tailerra jarri zuen Tolosan. «Jendeak konfiantza dauka urte askotako esperientzia daukagulako», ziurtatu du.

Usabal industrialdean daukan tailerrean denetik egiten du, marka guztietako autoekin: motor konponketak, olio aldatetak, distribuzioak, gurpilak aldatzea, balazten mantentze lanak, lerrokatzeak... Orain, ekologiararen aldeko apustu bat ere egingo du, GLP gasa jarritz. «Kotxea gasolinarekin eta gas horrekin ibiltzen da, ekologikoagoa da eta gutxiago kutsatzen du», azaldu du. Horretarako, tailerra egokituko du Fernandezek, eta ikastaro bat ere egin du.

Zerbitzu ugari emateaz gain, bezeroari ematen dioten arretari ere garrantzia ematen diote, gustatzen zaielako jendeari azaltzea piezak zergatik aldatu diren. «Beste tailer batzuetan, agian, konponketa zailak ez dituzte egiten, eta beste nonbaitera joateko esaten dizute. Gu horiek egiteko prest gaude».



Helbidea: Ibaiondo bailara, 18, 7. lokala, Irura — Telefono zenbakia: 943 69 16 19 / 664 385 545 —
Webgunea: www.aztaka4x4.com — Emaila: aztaka4x4@gmail.com —
Facebook: [Aztaka 4x4](https://www.facebook.com/Aztaka4x4)

4X4 AUTOETAN ESPEZIALISTAK

«4x4 ibilgailuetan hutsune handia nabaritzen dugu. Nahiz eta inguruan tailer asko dauden, gu gara 4x4 tailerretan espezializatuta gauden bakarretakoak edo bakarrak», diote Aztaka tailerrekoek. 2016tik ari dira lanean Irurako tailerrean, baina askoz urte gehiagotako esperientzia daukate. Hori dela eta, etengabe hazten ari dira, bi langiletik bost izatera igaroz: «Hasiera batean asko kostatzen da, baina urteen poderioz ikasi egiten da, eta gaur egun, ja-kinduria horretaz asko baliatzen gara».

4x4 ibilgailuetan duten jakinduria ez ezik, gertutasuna eta bezeroen beharretara egokitzeko daukaten ahalmena azpimarratzen dute Aztaka tailerrekoek. Gainera, zerbitzu eskaintza zabala daukate: mekanika orokorra, elektrizitatea eta elektronika, IAT ibilgailuen azterketa teknikorako ikuskapena, olio aldatetak, gurpilak aldatzea, bola jartzea, suspentsioak, argiak, osagarrien salmenta... «4x4 ibilgailuetan espezialistak gara, eta hain inguruan jakintza handia daukagu», nabarmendu dute. Gainera, edozein auto markarekin lan egiten badute ere, Toyota markan espezializatuta daude. Herritar guztiak, eta batez ere 4x4 ibilgailuak daukatenak, Aztaka tailerrera hurbiltzera animatu nahi dituzte: «Edonork etortzeko eta kontsulta egiteko aukera dauka».

10 11

ARRIARAN
GASOLINDEGIA

N-1 MOTOAK
GARAJEA



Helbidea: Laskibar bailara, 10, 5 eta 6 pabiloiak, Irura

Telefono zenbakiak: 943 54 45 55 / 688 646 926

MOTOZIKLETA ETA ZIKLO- MOTOR GARAJE BERRIA

N1 Motoak garajea ireki zuten Iruran, pasa den maiatzean. Scooterrak, ziklomotorrak eta motozikletak saltzen eta konpontzen dituzte bertan, bai berriak eta baita bigarren eskukoak ere. Motorzaleentzako arropa zein osagarriak ere eskuratu daitezke Irurako garajea.

Stock-ean dituzten ibilgailuez gain, 50 cc-tik hasi eta 600 cc-rainoko SYM-markako scooterrak dituzte. Horien artean 125 cc-ko zilindroen edukiera duten modeloen eskaintza zabala dute. Motor horiek B motako gidabaime-narekin gidatu daitezke eta 11 KW bitarteko potentzia dute. Zilindro edukiera horretan eta 250 cc artekoerainoko UM Motorcycles markako motorrak dituzte, eta trail, enduro, custom, sport eta scrambler modeloak dituzte.

Osagarri eta jantziei dagokienez jantziatarako Garibaldi marka ezaguna dute, baita RST marka ere, eskularruetan oso ezaguna dena, eta kaskoetan Bell marka dute. Off-road ekipamendurako UFO eta Answer markak dituzte.

N1 Motoak garajeak motorrak edo ziklomotorrak finantzatzeko aukera eskaintzen du, baldintza onuragarrietan.



Helbidea: Aita Larramendi kalea, 28, Tolosa. Telefono zenbakia: 680 584 125

Webgunea: www.arriaran.com Emaila: info@arriaran.com

Facebook: [arriaran.gasolindegia](https://www.facebook.com/arriaran.gasolindegia)

ERREGAIA BAINO GEHIAGO

Arriaran gasolindegia 70. urteurrena ospatzen ari da. «Prest gaude bezeroek dauzkaten beharrei erantzuteko», azaldu dute. Horregatik, urtero lortzen dute UNE175001-6 ziurtagiria, eta horrek ziurtatzen du kalitatezko zerbitzua ematen duen negozio txikia direla.

«Kalitatezko zerbitzuen eta produktuen aldeko apustua egiten dugu, eta bezeroen beharrak ahalik eta ondoen asetzeko, produktu sorta zabal bat eskaintzen dugu». Zehazki, erregaiaz gain, ibilgailuak garbitzeko tresna eta supermerkatua ere badauzkate. «Gaur egun, zerbitzu zentro bat bihurtu gara, ordutegi zabal batekin. Izan ere 06:00etatik 22:00etara egiten dugu lan», azaldu dute.

«Abantaila garrantzitsuak» ere eskaintzen dituzte, Klub Avia leialtasun txartelaren bidez. «Gure bezeroak oso gustura daude ateratzen dioten onurarekin», ziurtatu dute. Gainera, Gabonak direla eta, txartel hori erabiliz Gabonetako otarren zozketa ere badute.



Helbidea: Nafarroa etorbidea, 12 solairuarte, Tolosa — **Telefono zenbakiak:** 943 65 11 89 / 943 08 56 00 / 943 69 80 04 — **Emaila:** saldias@saldias-miguel.com — **Webgunea:** www.saldias-miguel.com

KALITATEA, GERTUTASUNA ETA BERRIKUNTZA OINARRI HARTUTA

Tolosan, Anoetan eta Beasainen dauzkan bulegoetan, bezeroekin gertuko harremana edukiz, ahalik eta zerbitzu onenak eskaintzen saiatzen da Saldias-Miguel aseguru etxea. Orain, mugikorreko aplikazio bat sortu dute, bezeroekin duten harremana sakontzeko.

Saldias-Miguel aseguru etxeak Tolosan, Anoetan eta Beasainen dauzka bulegoak, urteko lanegun guztietan zabalik. Horietan, mota guztietako aseguruak eskaintzen dituzte: autoenak, kamioienak, motorrenak, etxebizitzetakoak, komunitateetakoak, saltokietakoak, autonomoenak, bizi aseguruak, erretiro planak... «Gure helburua da mota guztietako aseguruak prezio baldintza eta zerbitzu onena eskaintzea», azpimarratu dute.

Kotxe aseguruei dagokienez, estaldura guztikoak dauzkate, baita hirugarrenei sortutako kalteak, bakoitzaren kalteak, lapurretak, suteak harriak egindako kalteak edo kristalak estaltzen dituztenak ere. Izan ere, kotxea ondo aseguraturik edukitzeak garrantzi berezia duela dio: «Beharrezkoa da, bai legez, bai bakoitzaren interesarengatik kotxea ondo aseguraturik edukitzea». Gainera guzti hori, prezio onekin eta kalitatearekin eskaini nahi izaten du Saldias-Miguel aseguru etxeak: «Prezioa eta kalitatea dira gure enpresaren ardatza. Bezeroei ahal den prezio onena eskaini behar diegu, eta aldi berean, zerbitzu onena eman». Horretarako, hamalau langile dauzkate, eta «merkatuko konpainia onenekin» egiten dute lan.



«Bezeroei gertutasuna eman nahi izaten diegu, beste aseguru etxeetatik bereiziz», ziurtatu dute. Arazoez aurrean, konponbideak ematen dizkiete bezeroei, horretarako prest dauzkaten hiru bulegoetan. Gainera, teknologia berrien aldeko apustua ere egin dute. «Bezeroak gure langileekin telefono, WhatsApp eta e-postaren bidez jarri daitezke harremanetan, baita zuzenean eraiki dugun app baten bidez ere», azaldu dute. Berrikuntza horren bidez ere, gertuko harremana sustatu nahi dute: «Uste dugu oso garrantzitsua dela bezeroari gertutasun hori ematea, mugikorrean, eguneko orduan».

LIKIDAZIOAN GAUDE!



4.900€-TIK
AURREAKO AUTOAK



CARZA
OCASIÓN

LINTZIRIN POLIGONOA, 20180 - OIARTZUN

IÑAUSTI IDN., 21, 20212 - OLABERRIA

13 14 SEICAR

**ANOETA
KARROZERIA**



Helbidea: Benta Aldea industrialdea, 4, Anoeta **Telefono zenbakia:** 943 65 13 08
Webgunea: www.carroceriasanoeta.es **Emaila:** anoeta@carroceriasanoeta.com

KALITATEA PREZIO ONEAN

31 urte daramatzate lanean Anoeta karrozerian. Aurretik, Anoetako etxe azpi batean aritu ziren, eta ondoren, leku handiago baten bila Benta Aldea industrialdera aldatzea erabaki zuten. Bertan askotariko lanak egiten dituzte: karrozeriako lanak, txapa eta pintura, elektrizitate arloan ere aritzen dira... «Marka guztietako kotxeekin eta furgonetekin aritzen gara, eta motorrak nahiz furgoneta txikiak ere ekarri izan dizkigute», azaldu dute.

Badakite zein den hainbeste urtean lanean jarraitzearen arrazoia: kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio ona. «Kalitate txukuna daukagu eta prezio justua». Hori bezeroek eskertzen diete, baita haiekin duten tratua ere: «Tratu ona ematen saiatzen gara, gertukoa. Jendea bueltan etortzen da, eta hori zerbaiten seinale izango da».

Etorkizunera begira ere, lanean jarraitzeko asmoa daukate: «Gaizki ere ez ditugu egingo gauzak hainbeste urtean hemen egoteko. Erretiroa ere bertan hartu beharko dugu».



Helbidea: Haizpea industrialdea, 2, Aduna **Telefono zenbakia:** 943 36 12 40
Webgunea: www.seicar.net **Facebook:** [seicar seicar](https://www.facebook.com/seicar.seicar)

40 URTE ETA ESPERIENTZIA ZABALA

Arretxea familiak kudeatzen duen enpesak 40 urteko ibilbidea du. Txapa eta pintura tailerrentzat eta karrozarentzat egiten dute lan, bai askotariko markekin aritzen direnak eta baita autoen kontzesionario direnak ere.

26 pertsonako lantaldea osatzen dute eta logistika eta biltegirako 3.000 metro karratuko espazioa dute. Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Arabako karrozeriekin egiten dute lan, baina baita kanpoan ere, izan ere Espainia, Frantzia eta Portugalen autoen pintura banatzeko zerbitzua dute.

Erreminta eta produktu sorta zabala eskaintzen dute, ia %100ean betetzen dute karrozeriako eskaria. Kimikoetan margotu behar den gainazala prestatu eta konpontzeko produktuak dituzte; inprimazioak, masillak, plastikoen tratamendua eta leunketak, esaterako.

Koloreari dagokionez, bi fabrikatzailerik onenen ordezkariak dira: Cromax marka duen Axalta, eta Lechler.

Osagarrietan aukera zabala dute ere: margotzerakoan behar diren urratzaileak, estalkiak, tresneria eta bestelako osagarriak.

Babesgarriei, arropari eta garbitasunari dagokionez, arnas aparatua eta entzumena babestekoak dituzte, eskularruak, arropa egokiak eta pinturak kentzeko xaboiak.

Ekipamendurako ere aukera zabala dute: margotzeko euskarriak, margotzeko pistolak garbitzeko makinak, jasogailuak, izpi infragorridun lehortzailak, margotzeko kabinak....



ZUHUR JOKATZEAZ HARAGO

Euria, kazkabarra, elurra, izotza... Gidatzerakoan gehiegi laguntzen ez duen eguraldia izan ohi da garai honetan, eta zuhurtziaz gidatzearekin batera, badira jarraitu beharreko hainbat gomendio.

Ibilgailuen egoerari erreparatzearekin eta zuhur jokatzearekin batera, badira hilabete hauetako klimatologiarekin gidatzerakoan kontuan hartu beharreko zenbait gauza.

Lehenik eta behin ibilgailua prest edukitzea da ezinbestekoa; gurpilen egoerari erreparatu behar zaio, argiei, bateria begiratu behar da, olioari, frenoiei... Beti izan behar dira kontuan elementu horiek, baina batez ere bidaia luze bat egiterakoan. Adituen bidaia baten aurretik ibilgailua garajera eramatea gomendatzen dute, eta egunerokoan autoa asko erabiliz gero ibilgailua tarteka garajera eramateko eskatzen dute. Hala ere, badira ezohikoak diren egoerak eta horietan badira kontuan hartu beharreko hainbat aholku.

Elurra egiten duenean posible da giroan dagoen hautsak, keak eta asfaltoan egon daitekeen koipeak errepidea irristakor uztea eta horren aurrean poliki eta tentuz gidatzea komeni da. Nahiz eta elurra erori berri egon, hotz handia egiten badu izoztu daiteke, eta beraz, ez da azkar gidatu behar eta martxa luzeak aukeratu behar dira, ibilgailuak ez dezan trakzioa galdu. Hai-

zeteak dauden egunetan ere poliki gidatzea komeni da, eta bolanteari sendo heldu behar zaio.

Eguraldia dena dela ere negurako pneumatikoak jartzea komeni da. Euriarekin, elurrarekin edo izotzarekin gidatzeko baldintzarik egokienak eskaintzen ditu, itsaspen hobe dute eta frenatzeko distantzia txikiagoa eskatzen dute, segurtasuna hobetuz.

Zalantzak izanez gero, Tolosaldean badira hamaika garaje eta aditu, eta seguru gure galdera eta zalantzei erantzuteko prest daudela.

NEGUAN BIDAIATZEKO GOMENDIOAK:

IBILGAILUA PRESTATU:

1. Likidoen maila, norabidearen, frenoaren eta argien egoera, bateria eta pneumatikoen marrazkiari erreparatu.

2. Ez ahaztu neguko pneumatikoak edo kateak elurra egin duen edo egiteko aurreikuspena duen tokietatik gidatuz gero. Larrialdietako hiru-kiak eta txalekoak ere eraman behar dira, eta baita hotzari aurre egiteko arropa egokia ere.




ELURRETARAKO KATEAK JARTZEKO EMAN BEHARREKO PAUSOAK




1. pausoa

Katea lurrean zabaldu behar da.




2. pausoa

Kable malgua gurpileko atzealdetik pasa behar da.




3. pausoa

Katea gurpileko hiru laurdenak arte altxatu behar da.



4. pausoa

Kable malgua lotu behar da.



5. pausoa

Katea lotu behar da.



6. pausoa

Kable malgua gurpileko barrualdera pasa behar da. Kablea ez da errodadurako bandan geratu behar.



7. pausoa

Kate txikia tenkagarriaren zirrikitutik pasa behar da, ahal den guztia tenkatuz. Alde batean dagoen eraztunetik pasa behar da gero eta gomazko muturra lotu.

ATERA BAINO LEHEN:

1. Bidaia alde aurretik prestatu eta ibilbidea lotu. Interneten begiratu zein eguraldi egingo duen.

2. Ez finkatu iritsi beharreko ordua, eta ez saiatu auto-ilara batean galdu-tako denbora berreskuratzen.

BIDEAN:

1. Ez hasi bidaiatzen lanaldia bukatu eta gero, eta ez gidatu ordu asko jarraian, atsedenaldiak egin.

2. Ez edan alkoholik gidatu aurretik, gidatzeko arauak errespetatu eta segurtasun uhala jarri.

3. Segurtasun tartea errespetatu, batez ere euria, elurra edo behe lainoa daudenean, modu horretara arrisku egoerak aurreikusteko aukera gehiago izango duzu.

4. Istripua ikusi edo izanez gero, ez arrisku gehiagorik sortu, larrialdietara deitu eta oso larri dauden zaurituak egonez gero, lagundu.

5. Hotz handia egingo duen lekuren batean geratuz gero, aurreikusi balazta-pastillak izoztu daitezkeela, eta haizetako-garbigailuak altxatu, elurraren pisuak ardatzak puskatu ahal dituelako.

6. Elurte bat egonez gero utzi lekua elurra kentzera doan makinari, moto-rra itzali eta ez utzi ibilgailua beste babesleku bat izan gabe.



VOLVO XC40 BERRIA 27.200 EUROTİK*

Sensus Navigation sistemarekin eta atzeraka
aparkatzeko distantzia kontrolatzeko kamerarekin.

GIDATU ZURE BIZI-ESTILOA



#VolvoXC40

Kontsumo mistoa (l/100 km) 4,8tik 7,2ra; CO2 isurketak (g/km) 127g.tik 168 g.ra

Ikusi autosuecia.es webgunean

Auto Suecia

**Jauregui auzoa, 76,
Hernani (Gipuzkoa)**

943 33 11 31

* Volvo XC40 T3 Base Premium Edition eskuzko auto abiadura aldagailua; penintsularako salneurria (Extremaduran izan ezik) eta Balear uharteetan 27.200 eurotik (BEZ, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena, eta Kontzesionarioen Sarea eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services * markapean finantzatutako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez, gutxienez 21.000 euro finantzatzeko. Gutxienezko iraupena, 48 hilabete. Gutxienezko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelem-en onarpenari lotuta. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.